

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

**LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA**

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Ekonomia Zirkularraren Nafarroako Agenda Bruselan

Elizalde kontseilariak Europako Batzordean aurkeztu du Foru Komunitateak iraunkortasunaren eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokaren inguruan duen politika publikoen zehaztapena

Asteartea, 2019.eko otsailak 5

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio kontseilaria, Isabel Elizalde, Europako Batzordeko Ingurumeneko zuzendari nagusia den Daniel Callejarekin bildu da gaur goizean Bruselan, Ekonomia Zirkularraren garapenerako Nafarroako Agenda berria aurkezteko. Dokumentu horretan, Foru Komunitatea politikaren publikoetan iraunkortasunaren eta aldaketa klimatikoaren aurkako borrokaren alde egiten ari den apustua zehazten da.



Elizalde kontseilaria eta Calleja zuzendari nagusia, bileraren une batean. Elizalderekin batera dira, Irujo, García Balaguer eta Jorge Molina, Aditech korporazio teknologikokoak.

Elizalderekin batera izan dira Ingurumeneko eta Lurralde Antolamenduko zuzendari nagusia, Eva García Balaguer, eta Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkaria, Mikel Irujo.

Topaketan zehar, Calleja zuzendari nagusiak zorionak eman dizkie Nafarroari eta Elizalderi “sektore guztietan lanaren zeharkako ekintza orientatzen duten iraunkortasun-estrategien garapenaren zabaltasun eta osotasunarengatik”.

Agenda hau ibilbide-orri bezala hartuta, Elizaldek azaldu du “Nafarroako Gobernuak bide hori zuzendu nahi duela ingurumen-politikaren aldetik, Ekonomia Zirkularra politika sektorialetan sartuta”; era berean, horretarako erreminta nagusiak nabarmendu ditu: Nafarroako Espezializazio Adimentsuaren Estrategia S3; Aldaketa Klimatikoaren Ibilbide-orria eta Hondakinen Plana 2017-2027 eta Hondakinen eta horien Fiskalitatearen Foru Legea, besteak beste.

Horrez gain, Nafarroa Ezagutu Sarearen inguruko xehetasunak aurkeztu dituzten Bruselan; hau da, Foru Komunitateko hogeita hamar bat espazio natural eta berezi eta berrogeita hamar bat Udal eta tokiko agente biltzen dituen elkarte. Elizalde horren garrantzia nabarmendu nahi izan du, espazio naturalen kudeaketaren inguruan "enplegu berdeak" sortzeko eta biodibertsitatea babesteko eta baloratzeko.

Nafarroarako Agenda

Ekonomia zirkularraren kontzeptua eredu ekonomiko berria da, eta baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatzea eta hondakinak ahalik eta gutxien sortzea, ingurumen-inpaktu garbia murriztea eta iturri berriztagarrietako energia erabiltzea proposatzen du, lehengaien erabilera zaintzen eta optimizatzen duen sisteman pentsatzearekin batera.

Nafarroan Ekonomia Zirkularra Garatzeko Agendaren barneko programan, ekintzak eta neurriak funtsezko hiru ardatzetan zehazten dira: Kultura Zirkularra; Diseinua, Lehengaiak, Ekoizpena eta Banaketa; eta Kontsumoa eta Hondakinen Kudeaketa. Dokumentua jendaurrean aurkitzen da Gobernu Irekiaren Parte Hartze Atarian, datorren otsailaren 24ra bitarte. Behin epe hori amaituta, parte hartzeko bilera presentzialak egiten hasiko dira, eta, era horretan, Agendaren behin betiko testua egiteko ekarpenak osatuko dira.

Europako Batzordea eta Ekonomia Zirkularraren paketea

Europako Batzordeak 2015ean onartu zuen Ekonomia Zirkularrerako Ekintza Plana, eta 2020ra bitarteko garapenean 54 neurriko paketea sartzen da, lehentasunezko bost arlorekin: plastikoak, alferrik galdutako elikagaiak, lehengai kritikoak, eraikuntza eta eraispina eta biomasa eta oinarri biologikoko produktuak.

Gaur egun, Ekonomia Zirkularraren Garapenerako Agendaren baldintzak zehazten ari dira, eta, ildo horretan, Ekonomia Zirkularreko Aktoreen Urteko Batzarra egingo da, Europako Batzordeak CESErekin, Europako Batzorde Ekonomiko eta Sozialarekin, partekaturiko ekimena. Martxoaren 6an eta 7an izango da, baita ere Bruselan, eta Nafarroako Gobernuaren izenean Mikel Irujo delegatua joango da.



Ezkerretik eskuinera. García Calleja, Balaguer, zuzendari nagusia, Elizalde kontseilaria eta Irujo.